




ARMENTIA



Armentiaiko basotik paseatzen

VITORIA-GASTEIZERAKO BASOA

Ibilaldi atsegin honen bidez, bisitaria Armentiaiko baso naturalean sartuko da; udalerriko mendilerro nagusi diren Gasteizko mendien ataria da.

Armentiaira oinez edo bizikletaz etortzea gomendatzen dizugu; hiriaren erdigunean dugun Florida parketik (3 kilometrotara baino ez dago) irten beharko zinateke, Senda ibilbide historikoari jarraituz: Vitoria-Gasteizko XX. mende hasierako luxuzko etxe eta jauregi garrantzitsuenetatik igaro, eta San Prudentzio basilikan amaitzen da, Armentia herrian, alegia.





- Luzera: 4,5 km
- Denbora gutxi gorabehera: ordubate
- Pista mota: bide-zorua
- Nola iritsi: L4, Armentia / Basilika geltokia



IBILBIDEA

Bidexka-sare zabal batek Armentiako basoa ① zeharkatzen du, eta oinezkoentzako, bizikletetarako eta zaldietarako bideak bereizten ditu sare horrek. Seinaleztatutako ibilbide nagusiak ondokoak dira: Eratzun Berdearen Bira –Zabalganetik Olarizura doa Armentiako parketik–, Eskibel Dorrerako Igoera eta Gasteizko Mendien Ibilbidea. Ondoko ibilbidea egitea proposatzen dizugu:

- Armentiako parkearen sarreran hasiko gara ①; hirigunea hegoalderantz joanez zeharkatu beharko dugu sarrera horretara iristeko. Aparkaleku txiki bat, Armentia izena duen harrizko horma bat eta informazio-panel bat ikusiko ditugu.
- Sarreratik sartuko gara, eta ezkerreko bidetik joango gara zenbait mahai eta iturri bat duen zelai zabal bat inguratuz. Plaza txiki batera iritsiko gara, eta hortik hasiko dira hiru ibilbide nagusiak. Eskuinetik joango gara, eta Eskibel dorrera eramango gaitu ②.
- Ibilbideko informazio-mugarri jarraituko diegu Eratzun Berdearen Birarekin bat egiten duen bidera iritsi arte. Tarte bat bide horretatik egingo dugu. Parkerako

beste sarrera batean egongo gara, eta belardi zabal batera iritsiko gara, non egoteko eremu bat dagoen, Eskibelera doan A-4101 errepidearen parean.

- Zenbait metro errepidearekin paraleloan egingo ditugu, Eskibel dorrera igotzeko ibilbidea eskuinerantz biratuz bereizten den arte; errepidea zeharkatuko dugu eta, aurrerago, baita Errekerera erreka ere.
- Eratzun Berdearen Biran jarraituko dugu beste bidegurutze batera iritsi arte. Birak ezkererantz jarraituko du, baina gure bidea aurrera doa; errepidearekin paraleloan dagoen zaldien pista batetik igo beharko dugu.
- Hurrengo bidegurutzean iparralderantz biratuko dugu (180°) itzultzeko bideari ekiteko. Gasteizko Mendien Ibilbidetik ③ jaitsiko gara herrirantz, basoaren barrualdetik. Behera egiten dugula, ezkererako eta eskuinerako zenbait bidexka ikusiko ditugu; horietako bat, Eratzunaren Birakoa da. Ibilbideko mugarri jarraituz, hasierako puntura iritsiko gara.
- Amaitzeko, Armentiako basilika ④ ikustera joan gaiteske.



7

INTERESGUNEAK

1 Armentiako basoa

Armentiako basoan giro anitz daude. Zenbait eremu adartsu eta itxietan, erkametzekin batera, astigarrak, elorri zuriak, elorri beltzak eta laharrek ikus ditzakegu, eta zuhaitzak sakabanatuta dauden eremu zabal eta argiagietan txilarrak, zarrantzak eta ipar orreak agertuko zaizkigu. Eremu garaienetan pagoak, gorostiak eta gurbeak aurki ditzakegu, eta erreketako ertzetan astigar, hurrondo eta lizarr ugari daude.

Giro ezberdinetan fauna aberats eta askotarikoa babesten da, ondoko animaliak, besteak beste: orkatzak, basurdeak, urtxintxa, hegazti harrapariak eta hogeita hamar txori txiki (kardantxiloak, txontak, txantxangorriak, ikazkinak etab.).

Ingurumen-balio handia du basoak hiriko eta hiri inguruko eremu berdeen eta Gasteizko mendien arteko korridore ekologikoa baita.

2 Eskibel dorrea

Eskibel mendia gailurrean (814 m), Gasteizko mendietan gaudela, XIX. mendeko dorre zaharrak zituen harresien zati batzuk topa ditzakegu; "Gometxako gaztelua" izenarekin ezagutzen da, Gometxa herritik hurbil dagoelako. Guda garaian, tropen kokapena zein zen jakiteko eta beste zaintza-guneen artean komunikatzeko erabili zuten; horiek guztiak defentsa



militarreko sare bat osatzen zuten, eta horri esker, kanpokoek ezin izan zuten Arabako lautada eraso.

3 Gasteizko mendiak

Silueta gozoa duen mendilerroa da; gehien jota 1.030 metro ditu. Ekialdetik mendebaldera doa eta lurraldea hegoalde mugatzen du. Iparraldeko mendi-mazela udalerrarena da, eta zenbait baso ditu: beheko larretan erkameziak, eremu amildegitsuetan eta gailurretan hariztiak eta pagadiak, eta leku harritsuagoetan eta eguzkitsuagoetan artadiak. Baso-aniztasun hori dela-eta, fauna askotarikoa eta aberatsa da; zenbait espezie arrunt eta beste animalia zorrotzago eta eksklusiboago batzuk bizi dira baso horietan, esaterako, aztorea, muxar grisa eta basakatua.



Eremua udalerriko biodibertsitatea mantentzeko oso baliagarria denez, mendietako mendebaldeko sektorea Interes Ekologiko Komunitarioko lekutzat jo dute Natura 2000 Sarearen barruan.

4 Armentia, San Prudentzioko basilika

San Prudentzioko basilika XII. mendeko eraikin erromanikoa da, eta VIII. mendeko

elizaren hondakinen gainean eraiki zen. Zenbait aldiz berritu dute, eta Erdi Aroko artearen adibide garrantzitsuenetako bat da; horrez gain, Euskadiko monumentu izendatu dute. Barrualdean arabarren zaindaria San Prudentzioren irudia dago; apirilaren 28an beraren eguna ospatzen da, eta herri-ohitura handiko erromeria egiten da.



BITXITASUNAK

Armentiako basoa berreskuratutako baso natural bat da. 1970eko hamarkadaren hasieran oso egoera larrian zegoen, gehiegi ustiatu zutelako eta etengabe sua hartzen zuelako, isuriengatik, beste batzuek sua egiten zutelako, bide eta bidexkek dentsitate handia zuteko eta eremu asko higatuta edo urez beteta zeudelako. Erkametzen baso naturalak gaizki osatutako oin dentsitate zabala zuen; zuhaixka-egoera zuten, eta oso zuhaitz gutxi ziren behar bezala garatuak.

1974an Arabako Foru Aldundia erkameztia hobetzen hasi zen, eta oihana galduta zuten lursailetan parke botaniko bat sortzeari ekin zion; parke horretan bertako espezie batzuk eta beste espezie aloktono batzuk sartu zituen. Garai hartan landatu zituzten parketik ikus ditzakegun astigarrrak, gurbeak, altzifreak eta beste espezie asko.

Eraztun Berdeko parkeen sarean sartu ondoren, bidexken sare egituratu bat egokitu zen; narriatutako eremuak eta erreken ertzak hobetu ziren, egoteko bi eremu egokitu ziren eta zuhaitzen beharrezko mantentze-lanak gauzatu zituzten behar bezala zaintzearen.

